

2019ko URRIAREN 15ean UDALBATZARRAK EGINDAKO APARTEKO OSOKO BILKURAREN AKTA **14 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2019ko urriaren 15ean, goizeko bederatzi eta erdietan, Udalbatzarra bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen aparteko bilkura egiteko xedez.

Honako zinegotzi hauek bertaratu dira:

Batzarburua	Xabier Txurruka Fernandez jn.
Bertaratutako zinegotziak	Jesus Arana Gomez jn. Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and. Iban San Martin Hernandez jn. Ixidor Larrañaga Ayerbe jn. Iker Basurko De Miguel jn. Itziar Murua Uria and. Ainara Landa Argote and. Xabier Etxaburu Elu jn. Gloria Vazquez Herranz and.
Ez dira etorri	Miren Letamendia Belloso and. Leire Arana Olabarrieta and. Jon Andoni Urdangarin Urrutia jn. Irene Urbieta Alberdi and. Ion Arozena Eizagirre jn. Mikel Goenaga Gubia jn. Begoña Olaizola Elordi and. Jesus Goikoetxea Balentziaga jn. Eider Illarramendi Azkue and. Patxi Elola Azpeitia jn. Oihane Delgado Pita and.
Idazkaria	Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Bilkurari hasiera emanda, **batzarburu** jaunak adierazi du bilkura apartekoa dela eta horren arrazoia dela, hain zuzen ere, hauteskunde-mahaietarako kideak izendatzeko presa.

Ondoren, eguneko aztergai bakarra aztertu eta eztabaidatzeari ekin dio Udalbatzarrak. Bilkura honela izan da:

GAI-ZERRENDA

Bakarra.- HAUTESKUNDE-MAHAIETARAKO KIDEAK IZENDATZEA

2019IE150003 espedientea

2019ko azaroaren 10ean Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako mahaiak osatuko dituzten mahaikideak izendatzeko zozketa hasi aurretik, **idazkari** andreak irakurri egin du jarraitu beharreko prozedurari buruz berak prestatutako txostena.

Ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoak, Hauteskundeen Araubide Orokorrari buruzkoak, ezarritakoaren arabera, Udalek izendatu behar dituzte 2019ko azaroaren 10ean Gorte Nagusietarako egingo diren Hauteskundeetarako hauteskunde-mahaikideak.

Artículo 26

- 1. La formación de las Mesas compete a los Ayuntamientos, bajo la supervisión de las Juntas Electorales de Zona.*
- 2. El Presidente y los vocales de cada Mesa son designados por sorteo público entre la totalidad de las personas incluidas en la lista de electores de la Mesa correspondiente, que sepan leer y escribir y sean menores de setenta años, si bien a partir de los sesenta y cinco años podrán manifestar su renuncia en el plazo de siete días. El Presidente deberá tener el título de Bachiller o el de Formación Profesional de segundo Grado, o subsidiariamente el de Graduado Escolar o equivalente.*
- 3. Se procede de la misma forma al nombramiento de dos suplentes para cada uno de los miembros de la Mesa.*
- 4. Los sorteos arriba mencionados se realizarán entre los días vigésimo quinto y vigésimo noveno posteriores a la convocatoria.*

Guztira 28 mahai osatuko dira, barrutiz barruti zein sekzioz sekzio honela banatuta:

Barrutia Sekzioa	Mahaia	Hautesleak
1-1	A	782
1-1	B	749
1-2	A	534
1-2	B	495
1-3	A	478
1-3	B	530
2-1	A	647
2-1	B	605
2-2	A	763
2-2	B	726
2-3	A	747

2-3	B	801
2-4	A	707
2-4	B	677
2-5	A	574
2-5	B	635
2-6	A	679
2-6	B	725
2-7	A	518
2-7	B	461
2-7	C	324
2-8	A	774
2-8	B	787
2-9	A	702
2-9	B	744
2-10	A	538
2-10	B	535
2-11	U	916
Guztira.....		18.153

Zozketa ausazko moduan egingo da, Estatistikako Institutu Nazionalaren (INE) “CONOCE” programaren bidez.

Mahaiburua, 2 mahaikide eta horietako bakoitzaren 2 ordezeko izendatu beharra dago mahai bakoitzerako. Hau da, mahai bakoitzeko 9 pertsona. Zarautzen guztira 252 lagun behar dira.

Hala ere, “CONOCE” aplikazioak zozketan aurreikusita dauka postuak betetzeko beharra egon daitekeela, aurkezten diren aitzakiak onartzen badira.

Zozketan bertan kargu bakoitzeko bederatzi ordezeko izendatuko dira hutsunerik gertatzen diren kasuetarako.

Ondoren, eta ezarritako formaltasun guztiak beteta, datorren azaroaren 10ean hauteskunde-mahaiak osatuko dituzten pertsonak izendatzeko zozketa egin da.

Akta honekin batera dago, eranskin gisa, 28 hauteskunde-mahaietako bakoitzerako izendatutako pertsonen zerrenda.

Eta aztertze besterik ezean, batzarburu jaunak hala aginduta, bilkurari amaiera eman diote, goizeko hamarrek hogeita bost gutxiagotan, eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.